



**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus--



## **KONTROL MOZIOA**

### **UDALTZAINEN KONTRATAZIOARI BURUZKOA**

Jabier Vitoria Roma EH BILDU udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua babesean, honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du, 2025eko martxoaren 17ko Zerbitzu Orokorren Batzordean aurkeztutako INTERPELAZIOAREN ondorioz.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Azken aste eta hilabete hauetan, udaltzainak kontratatzeko formularik egokienari buruzko eztabaida izan dugu EAEko hainbat herri eta hiritan.

Udaltzaingoko langileen ordezkariak behin baino gehiagotan agerian jarri dituzte alderdi horien inguruko gabezia batzuk, langileak hautatzeko eredua, Arkautetik erabat egiten dena, aldatu delako.

Lan-alderdiak konpontzen laguntzeaz gain, gure toki-administrazioak bultzatutako Enplegu Publikoaren Eskaintza batek bermatuko luke, besteak beste, gure hiria (kale-izendegia, udal-ordenantzak...) eta euskara komunikazio-bide gisa ondo ezagutzea. Horrek guztiak gure hiriaren irudi hobea eta kalitatezko eta donostiarrengandik hurbilago dagoen zerbitzua ematen lagunduko luke.

Herriarrei gertuko zerbitzu bat eskaini nahi badiegu eta nahi ez diren egoerak ekidin nahi badira, uste dugu udaltzain horiek kontratatzeko prozedura birplanteatzea izan daitekeela gakoa.

Mozio honekin ez da zalantzan jartzen prestakuntza Arkautek egin behar izatea, baizik eta tokiko agente funtzionarioen beharrak betetzeko eta behin-behineko premiei erantzuteko lan-poltsa bat eratzeke lan-eskaintza publikoa Donostiako Udalak berak egitea.

Azaldutako guztiagatik, **KONTROL MOZIO** hau aurkezten dugu:



**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus--



1.- Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio azter ditzala Udalak berak kudeatutako EPE propio bat bultzatu eta onartzeko aukera ematen duten legezko formula guztiak, Udaltzaingoan kontratazio finkoak eta behin-behinekoak egiteko sortzen diren premiei erantzuteko.

Donostian, 2025ko martxoaren 21a

**Sin.: Jabier Vitoria Roma**  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**